

Goenagak koadro bat margotu eta eskaini die Policlínica Gipuzkoako profesionalei

- **Obra bere seme Telmok entregatu du eta Joseba Vidorretak, Euskadiko Quirónsaludeko lurralde-zuzendariak, jaso du.**
- **Policlínica Gipuzkoako osasun-profesionalak omentzeko sortutako pieza berezia da.**

Donostia, 2022ko maiatzaren 13a.-Juan Luís Goenaga pintore donostiarrek bere esker ona adierazi nahi izan dio Policlínica Gipuzkoari, eta eskerrak eman nahi dizkie profesionalek egiten duten lan handiagatik. Lana Telmo Goenaga semeak gaur goizean entregatu du, eta ospitale donostiarreko sarrerako horma nagusietako batean jarri dute, ospitalera sartzen diren pertsona guztiek ikus dezaten.

Telmo Goenagari Joseba Vidorretak, Euskadiko Quirónsaludeko lurralde-zuzendariak, egin dio harrera eta eskerrak eman dizkio Policlínica Gipuzkoako eta Quirónsaludeko profesional guztien izenean.

Ekitaldian, Gipuzkoako Quirónsaludeko zuzendaria, Óscal Paúl; Quirónsaludeko Gipuzkoako Zuzendari Medikoa, Sonia Roussel; eta Gipuzkoako Quirónsaludeko Erizain Zuzendaria, Amaia Azkue, ere egon dira.

Goenagak zentroa eta osasun-langile taldea omendu nahi izan ditu pinturaren bidez. Margolariak Policlínica Gipuzkoarekiko sentitzen duen afektuaren adibide da lan hau dohaintzan eman izana, eta 1975etik gipuzkoarren osasunaren defentsan bertako profesionalek egiten duten lanaren errekonozimendua da.

Obra sarrera nagusian jarri dute. Oihal gaineko olio-pintura da eta **162cm x 130cm** neurtzen ditu. Koadroan margolari donostiarraren estilo bereizgarria ikus daiteke eta, bere azken lanetan bezala, argitasuna eta karga materiko handiko espresionismo abstraktua nabarmendu nahi izan ditu. Oraingoz, obrak ez du izenbururik, artistari obrak jalkitzen uztea gustatzen baitzaio eta denbora pasatzean jartzen baitie izenburua.

Juan Luís Goenagaren hitzetan, obraren edukia eta kokapena (sarrera nagusia) kontuan hartuta: **"Policlínica Gipuzkoara datozen paziente eta senideentzako pizkarri izatea gustatuko litzaidake".**

Juan Luís Goenagak 250 erakusketa baino gehiago egin ditu, bakarka zein taldean, eta bere obrak museoetan, galeria pribatuetan eta estatuko eta nazioarteko erakundeetan daude. Bere azken proiektu artistikoak aipatzerako orduan, **Woody Allenen Rifkin's Festival** filmean parte hartu zuela aipatu behar da; izan ere, zuzendariak Goenagaren 100 mihise baino gehiago erabili zituen pelikulako eszenak erreproduzitzeko.

Quirónsalud taldeari buruz

Quirónsalud ospitale-talde liderra da Espainian, eta Fresenius-Helios enpresa matrizearekin batera, baita Europan ere. Espainian egoteaz gain, Quirónsalud Latinoamerikan ere badago, Kolonbian eta Perun bereziki. Osotara, 160 osasun-zentrotan 45.000 profesional baino gehiago ditu, eta horietatik 55 ospitaleak dira eta 8.000 ospitale-ohere inguru dituzte guztira, gutxigorabehera. Teknologia aurreratuena du, eta espezializazio eta nazioarteko ospe handiko profesional-talde bikaina. Besteak beste, honako zentro hauek ditu: Jiménez Díaz Fundazioa Unibertsitate Ospitalea, Teknon Zentro Medikoa, Ruber Internacional, Quirónsalud Madril Unibertsitate ospitalea, Quirónsalud Bartzelona ospitalea, Dexeus Unibertsitate Ospitalea, Policlínica Gipuzkoa, Kataluniako Unibertsitate Ospitale Orokorra, Quirónsalud Jesusen Bihotza Ospitalea, etab.

Taldea irakaskuntzaren sustapenean (bere ospitaleetako bederatzi unibertsitate-ospitaleak dira) eta ikerketa mediko-zientifikoaren sustapenean aritzen da (Ikerketa Sanitarioko FJD Institutua du, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntzako Estatu Idazkaritzak ziurtatua).

Era berean, asistentzia-zerbitzua zeharkako unitate eta sareetan antolatuta dago eta, horri esker, zentroetan metatutako esperientzia optimizatu daiteke eta ikerketak klinikaren arlora eramaten. Egun, Quirónsalud hainbat eta hainbat ikerketa-proiektu ari da garatzen Espainia osoan, eta taldeko zentro askok puntako lana egiten dute alor horretan, hainbat espezialitatetan aitzindari izanik; besteak beste: onkologian, kardiologian, endokrinologian, ginekologian eta neurologian.